

## **Inspira STEAM Euskadiren bosgarren edizioa abian da. Hiru aurkezpen-jardunaldi egingo dira: Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban**

**Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak elkarlanean dihardu, bai aurkezpenetan, bai datorren ikasturterako mentoreen bilaketan; emakume zientzialariek COVID-19aren sasoian zientzian eta teknologian emakumeen talenturako dagoen beharraz hitz egingo dute**

**Deustuko Unibertsitatea da *mentoring*-eko proiektu horren buru; proiektuaren helburua da Lehen Hezkuntzako neskatoen artean zientzia-eta teknologia-bokazioak sustatzea**

Deustuko Unibertsitatearen Inspira STEAM Euskadi proiektuaren helburua da neskatoen artean zientzia- eta teknologia-bokazioak sustatzea, eta, datorren ikasturtean, bosgarren edizioa izango da. Edizio hau aurkezteko, hiru jardunaldi antolatu dira: Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. Haien bidez, taldeko *mentoring*eko ekintzetan oinarritzen den programa honetarako mentoreak bilatu nahi dira Lehen Hezkuntzako ikasleen eta ikerketaren, zientziaren eta teknologiaren munduko emakume profesionalen artean.

Gero eta emakume gehiagok egiten dute bat urtero ekimen honekin; ekimenak Innobasqueren laguntza eta hiru foru-aldundien (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba), BBKren, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen eta Debegearen finantzaketa du. Iazko ikasturtean, 250 mentorek 80 ikastetxetako 2.135 neskatori eta 2.145 mutikori beren lanbidea eta STEAMen mundua erakutsi zizkieten, eta, hala, joerak eta kliseak apurtu eta hurbileko erreferenteak sortu zituzten.

[Mentoreak](#) dira proiektuaren ardatz; haiek, borondatez, beren egunerokotasunaren berri ematen diete neska-mutilei, 6 lan-saioren bidez, irakastorduetan. Guztiak dira zientzialariak eta teknologoak eta honako eremuetako batean dihardute lanbide-jarduera garatzen: akademikoa, enpresakoa, ikerketakoa, kudeaketakoa etab.

Lan-saioretan, zenbait gai aztertzen dira, besteak beste, inguratzen gaituzten estereotipoak, STEAM lanbideak edo historian zehar emakumeek eta zientziak egin duten ekarpenaz hitz egiten da. Mentorearen eta neskatoen arteko topaketa horien helburua da zientziako eta teknologiako lanbideen inguruan egon daitezkeen zalantzak eta eragozpenak argitzea, haien motibazioak argitzea eta haien autoestimua finkatzea, lanbide-ibilbide horri ekiteko, hala nahi badute.

Inspira STEAM-en ikastaro berria uztailaren 21ean, 22an eta 30ean aurkeztuko da Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban, hurrenez hurren, eta, aurkezpenetan, honako hauek

izango dira: Teresa Laespada, Bizkaiko Foru Aldundiko Enpleguko, Gizarte Inklusioko eta Berdintasuneko foru-diputatua; Miren Elgarresta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen Berdintasun Erakundeko zuzendaria; Duñike Agirrezabalaga, Donostiako Udaleko Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria; Ramiro González, Arabako diputatu nagusia, eta Itziar Epalza, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko zuzendari nagusia.

Gainera, jardunaldi bakoitzean, mahai-ingurua antolatu da emakume zientzialari eta teknologoei, honako gai honetaz hitz egiteko: emakumeen talenturako beharra zientzian eta teknologian COVID-19aren sasoian. Jardunaldia online jarraitu ahalko da.

### **Inspira STEAM Euskadi 2020/21en aurkezpen-jardunaldia – Bizkaia**

Uztailaren 21a. 09:00 – 10:30. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea.

Izen-ematea: <https://forms.gle/Xst3pSuumsQJT6daA>

Ongietorri-ekitaldia:

Itziar Epalza, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko zuzendari nagusia  
Teresa Laespada, Bizkaiko Foru Aldundiko Enpleguko, Gizarte Inklusioko eta Berdintasuneko foru-diputatua

Inspira STEAM proiektuaren aurkezpena:  
M<sup>a</sup> Luz Guenaga, Inspira STEAMen arduraduna, Deustuko Unibertsitatea

Hitzaldia-solasaldia: Emakumeen talenturako beharra zientzian eta teknologian COVID-19aren sasoian:

Iratxe Olabarri (Ingeteam)  
Elena Galán del Castillo (BC3)  
Antonio Laso (Aleovitro)

Wendy Mina Vidal (ESS Bilbao)

Moderatzailea: Ainhoa Calleja, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko Lankidetzaren eta Zerbitzuen Arlokoa

Ondorioak eta topaketaren amaiera: M<sup>a</sup> Luz Guenaga

### **Inspira STEAM Euskadi 2020/21en aurkezpen-jardunaldia – Gipuzkoa**

Uztailaren 22a. 09:00 – 10:30. Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea.

Izen-ematea: <https://forms.gle/Xst3pSuumsQJT6daA>

Ongietorri-ekitaldia:

Amaia Bernaras, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko kudeatzailea

Miren Elgarresta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen Berdintasun Erakundeko zuzendaria

Duñike Agirrezabalaga, Donostiako Udaleko Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria

Inspira STEAM proiektuaren aurkezpena:

M<sup>a</sup> Luz Guenaga, Inspira STEAMen arduraduna, Deustuko Unibertsitatea

Hitzaldia-solasaldia: Emakumeen talenturako beharra zientzian eta teknologian COVID-19aren sasoian:

Clara Garcia, (CIC biomaGUNE)  
Amaia Gil, (Vicomtech)  
Amaia Zurutuza, (Graphenea)

Ainhoa Cortes, (CEIT)

Moderatzailea: Ainhoa Calleja, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko Lankidetzaren eta Zerbitzuen Arlokoa

Ondorioak eta topaketaren amaiera: M<sup>a</sup> Luz Guenaga

### **Inspira STEAM Euskadi 2020/21en aurkezpen-jardunaldia – Araba**

Uztailaren 30a. 09:00 – 10:30. Artium. Vitoria-Gasteiz

Izen-ematea: <https://forms.gle/Xst3pSuumsQJT6daA>

### **Ongietorri-ekitaldia:**

Ramiro González, diputatu nagusia, Arabako Foru Aldundia  
Itziar Epalza, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko zuzendari nagusia

Inspira STEAM proiektuaren aurkezpena:  
M<sup>a</sup> Luz Guenaga, Inspira STEAMen arduraduna, Deustuko Unibertsitatea

Hitzaldia-solasaldia: Emakumeen talenturako beharra zientzian eta teknologian COVID-19aren sasoian

Ainhoa Corcuera (Egibide)

Beatriz Andújar (Mizar)

Vanesa Martínez (Giroa-Veolia)

Virginia Sáez (I+MED S.Coop.)

Moderatzailea: Ainhoa Calleja, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko Lankidetzaren eta Zerbitzuen Arlokoa

Ondorioak eta topaketaren amaiera: M<sup>a</sup> Luz Guenaga

Bilbo: 2020ko uztailaren 20